

HAMARRENAK EUSKAL HERRIAN: CALAHORRAKO ELIZ BARRUTIA XI-XIII. MENDEETAN

Eugenio Riaño

Lan honek Elizaren zerga baten funtzionamendua ikertzen du. Calahorrako katedralean gordetzen den dokumentazioa erabiliz hamarrenak Goiz Erdi Aroko Euskal Herriko eskualde batean zuen garrantzi ekonomikoa aztertzen da.

Hitzaurrea

Euskal Herriaren barnean eragin handia daukaten kanpotar eliz erakundeen artean Calahorrako eliz barrutia aurkitzen dugu¹.

Egungo Euskal Herriko lurraldean Erdi aroan bost eliz barruti topatzen ditugu. Alde batetik Baionakoak Iparraldean eta mugaren alde honetan Gipuzkoa eta Nafarroako lurralde batzuetan zuen eragina². Iruñekoak ia Gipuzkoa eta Nafarroa osoa hartzen zituen³. Tarazonakoak (egungo Zaragoza probintzian) Tuterako erribera⁴. Euskal Herriko mendebaldeko lurraldeak, hots, Bizkaiko Enkarterriak eta Arabako mendebaldeko haranak, Burgosko apezpikutegiaren barnean zeuden⁵. Azkenik, Calahorran ia Araba eta Bizkaia osoa, Gipuzkoako Deba harana eta Nafarroako zenbait herri, Viana ingurukoak batez ere, sartzen ziren⁶. Calahorrako eliz barrutiko herri euskaldun hauek lau artxidiakonotegitan, bereziki Araba eta Bizkaikoan, banatzen ziren⁷. Bizkaikoa ez da beti dokumentuetan agertzen, baina dokumentazioaren izaera ekonomikoarengatik dela uste dugu⁸. Arabako artxidiakonotegiaren barne gaur egun bizkaitarrak diren Orduñako lurraldeak, Gipuzkoako Leniz harana eta Burgosko Trebiño zeuden⁹. Beste aldetik, Arabako ekialdea eta Nafarroako mendebaldea Berberigo edo Bernedoko artxidialdi-konotegian zeuden¹⁰. Azkenik, Laguardia inguruko lurraldeak Najerako artxidiakonotegiari zegozkion¹¹.

Gutziz beharrezkoa den lekuzko kokapenaren ondoren, denborazkoa. Ez da gure asmoa hamarrenen erabateko historia egitea, baizik eta hurbilketa bat egin hamarrenen behin betiko finkapena eman zen momenturarte, hain zuzen 1215ean, laugarren Latrango kontzilioan¹². Calahorrako Katedralaren dokumentazioaren bitartez data honetararte hamarrenek nola funtzionatzen zuten aztertuko dugu¹³.

Aipatutako kontzilioan, D. Aznar apezpikuak arau finkoak ezarri zituen arte lehenengo Konstituzioen bitartez¹⁴. Konstituzio hauetako sei artikulua hamarrenei buruzkoak dira¹⁵; berauetan eliz barrutiko biztanle guztiek ordaindu behar dituztela arautzen da, baita beste pertsona baten menpe daudenak ere. Era berean, ordena erlijioso, militar edo kofradietako partaideek ere¹⁶. Etekinen biltzea elizgizonen bitartez eta hauen banatzea ere arautzen da, guzti honetan apezpikuari lehentasuna ematen zaiolarik¹⁷. Artisauak eta artzaiek ordaindu beharrekoak ere agertzen zaizkigu, aurreko ohiturak eta Latrango arauak bateratzen saiatzen direlarik¹⁸.

Guzti hau, alabaina, gure historiaren bukaera da, hemen idatziriko lege bat agertzen baitzaigu, nahiz eta legea eta errealitatearen artean desberdintasun handia egon ohi den.

Egoera hau azertu baino lehenago hamarrenak zer diren zehaztuko dugu.

Zer dira hamarrenak ?.

Denbora asko igaro da Georges Duby-k hamarrenen historia idaztear dagoela esan zuenetik¹⁹; Iberiar Penintsulan ere islamdarrak sartu zirenetik XIII. menderarte erantzun gabeko galdera asko geratzen zaizkigu. San Martin aspaldi mintzatu zen hauei buruz²⁰. Ez dakigu oraindik zein den hamarrenen jatorria, noiz pasatu zen borondatezko ekarpen izatetik betebehar izatera, zein den beste zerga laiko batzuekin duen harremana, “decima” delakoarekin adibidez²¹, non kolonoak lurjabeari, bere jabetasuna onartuz, uztaren hamarren bat ordaintzen zion, edo izan dezakeen jatorri laikoa. Hamarrenak luze iraungo du espainiar estatuan, 1837. urtean desagertuko baita legez.

Guretzat hamarrenak elizari, egile edo Jainkoaren ordezkari bezala urtero ordaintzen zaion produktu gordinaren proportziozko zati bat da, elizaren beharrak betetzeko helburuarekin. Elizak bere jaurgu erlijiosoaren izenean kobratzen duen zerga bat da, era honetan elizako zenbait partaidek gizartean duten lehentasuna ziurtatzen delarik.

Gure kasuan Garcia Najerakoa Iruñeko erregeak Calahorra berreskuratzen duenean 1045ean, bere lehen ekintza katedrala hornitzeaz gain honi hamarrenak biltzeko eskubidea ematea izango da²². Ordainaren betebeharra ere aipatzen da²³, baina ez da zehazten zein lurraldek ordaindu behar duten. Horrela “urbe et conterminio” terminoa zalantzan uzten

zaigu²⁴. Hamarrena “fructus” (lurrak emandako ekoizpena) eta “frugum” (berdina baina aleetan ematen dena) eta abere eta negozioen hamargarren zatia da, pertsona guztiek elizari ordaindu behar diotena, edozein egoera sozial, duintasun edo botere izanik²⁵.

Garai honetan Calahorrako elizaren barnean ez dago Armentia apezpikutegia oraindik, hau XI. mendean, Alfonso VI.ak bultzatuko duen zentralizazioaren ondorioz elkartuko zaiolarik Calahorrari²⁶.

Calahorrako eliz barrutia osatzen duten parrokiei buruz lehen informazioa XII. mendekoa da, bertan Araba eta Bizkaia sartzen direlarik²⁷. Mende honen hasieran ematen dira arabar direlakoan eta Calahorrako apezpikuaren arteko hitzarmenak, hamarrenei eta apezpikutar laurdenei dagozkiena²⁸. Beraz XII. mendearen hasieran Calahorrako eliz barrutiaren barne dauden euskal lurralde batzuk hamarrenaren betebeharra dutela badakigu, agian baita data honen aurretik ere. Bizkaiari buruz aldiz ez dakigu ezer.

Noiztik kobratzen ziren hamarrenak Penintsulan eta zein diren honi buruzko teoriak.

Normalean edozein hamarrenen historiak liburu santutan agerpeneraino eramaten gaitu. Juduentzat lege nazional bat zela ematen du. Askotan agertzen da Itun Zaharrean hamarrena deituriko eskaintza Abrahamen garaitik aurrera²⁹. Hamarren hauen ordainketa biztanle guztientzat

borondatezkoa bada ere, ematen zaizkigun adibideak gizartean eredu diren pertsonenak dira bakarrik. Itun berrian, aldiz, gizarte osoari dagozkio ereduak³⁰. IV. mendetik aurrera idazle kristauen artean hamarrenei buruzko aipamen posibleak ere badaude, 585. urteko Makoneko kontzilioaren V. kanonean hamarrenik ordaintzen ez dutenei eskomiku-sententzia ezartzen zaie³¹. Legegintza zibilak 779. urtetik aurrera, Karlomagnoren Heristalleko kapitularrekin laguntzen dio³². Garai honetako hamarrenaren beharrezkotasunari buruz asko eztabaidatu da, betebeharrak hori aurrera eramaten zen ala ez eztabaidatu den bezala³³. Iberiar penintsulari dagokionez, gai hau aztertu duten idazle gehienek Toledoko erresuma bisigodoaren garaian hamarrena pietatezko usantza bat zela eta bere esangura ekonomikoa oso txikia zela azpimarratu dute³⁴. Horrela, ez dugu hamarrenei buruzko aipamenik aurkitzen legegintza kontziliarrean, nahiz eta batzuen ustez eskaintzen barne sartuta ager daitezkeen³⁵.

Zenbaitzuek hamarrenaren ezarpena islamdarren konkistarekin lotu dute³⁶; honen arabera, hamarrenaren jatorria dominatzaileek kristauei ezarritako zerga batean edo kristauek musulmanengandik defendatzeko batzen zuten diru-kopuruan egon daiteke.

Guztira, VIII. mendetik X. menderaino agertzen zaizkigun hamarrenei buruzko berriak gutxi eta ilunak dira. Bakarrik Marka Hispaniarrean, Catalunyaoko iparraldean bereziki, bere funtzionamendua ez dela pasadizu

hutsean geratzen ematen du³⁷. Donemiliagako monastegiko dokumentazioan, Najerako apezpikuak, gero Calahorrako apezpiku izango dena, abade bati egindako hamarrenaren uzteari buruzko X. mendeko dokumentu bat dago³⁸, baina, ikusten denez, sakabanaturiko informazioa baino ez da. Honek teoria oso bat egitea galarazten digu.

Ez dago batere argi zerga honen beharrezko izaera, are gehiago, borondatezkoa dela ematen du. Ezin da beste era batera izan, kontutan hartzen badugu ez zegoela gurtzeko lekuen hierarkizazio bat eta errenta-kontzeptu desberdinak ari zirela finkatzen. Agian monastegiak ziren hamarrena biltzeko gai ziren bakarrak, haien jabegoetan eta eragina zuten lurraldeetan eliz barrutien sasiberpizkunde bat suposatu zutelako.

XI. mendearen erdialdetik XIII. mendearen erdialderarte doazen urteak dira oinarritzkoenak hamarrenaren beharrezkotasunaren ezarpenean. Oso idazle gutxi ukatzen dute gregoriotar eta Klunitar erreformaren garrantzia XI. mendeko hasieratik aurrera Penintsulan. XI. mendearen amaieratik edo XII. mendetik aurrera hamarrenaren beharrezkotasuna behin betikoa izango da³⁹. Finkapen hau apezpikutar elizak eskumenezko instantzia gisa izango duen sagarapenarekin eta parroki sare baten sorrerarekin batera emango da. Garai honetan elizak, laikoen eskuetan egotetik monastegien eskuetara pasatuko dira.

XI. mendeko Coyanzako kontzilioa gregoriotar erreformaren sinboloa izango da Penintsulan⁴⁰. Honek “ius episcopale” deituriko eskubidea eliz barrutiko lurralde guztietara hedatzen du⁴¹. XII. mendean, Latrango bigarren (1139) eta hirugarren (1179) kontzilioek monastegiekin izandako gatatzengatik herenak, hamarrenak eta elizen eskumena arautuko dituzte⁴². Finkapen progresibo honek eliz barrutiko artxidiakonotegi eta parrokien lurraldetasuna ekarriko du mendearen bigarren erdialdean, sistema normalizatu eta estabilizatuz⁴³.

1215. urtean ospatutako IV. Latrango kontzilioaren ostean hamarrenak elizaren aberastasun-iturri garrantzitsuenetariko bat izango dira⁴⁴.

Orditik aurrera benefiziodunen arteko gehiago erregulatutako banaketa suertatzen da, honek “prestimonio”-en banaketa (prestimonio: cura animarum gabeko erlijiozko benefizioa) eta kanonigoen laikotzapena ekartzen digu⁴⁵. Izendapenen finkotasuna XV. menderaino mantentzen da.

Erregeek aita santuen kontzesioez lagunduta eliz zerga honen parte bat hartuko dute 1247. urtetik aurrera 1219. urteko aurrekoak kontua hartuz⁴⁶, Fernando III.ak Penintsulako islamdarren kontrako gurutzadarako ekarpenez hamarrenen 2/9 kobratzen du.

XIII. mende erdialdean Alfonso X.aren dokumentu batek, J.L. Martinek erabili zuen dokumentu batek⁴⁷, bidearen amaierara heldu garela esaten digu. Hamarrena bere

jainkozko sormena eta izaera unibertsalaren bitartez legitimatzen da; honekin batera bere borondatetasun teorikoak fededunei dohainak ekarriko dizkie⁴⁸.

XIII. mendetik eta XIV. mende hasierararte legegintzak barra-barra sartu eta finkatzen du. Bai “Fuero Real” ean, bai Partidetan, “Nueva edo Novísima recopilación”-ean beharrezko zerga bezala adierazten zaigu⁴⁹.

Hamarrenaren ekarpenei buruzko informazioa nahiz apezpiku-hirian, nahiz beste lekuetan XII. mendean handitzen da. Behean ikusiko dugunez hartzaile desberdinen arteko produktu honen banaketan eta beste aldetik hierarkiazko laurdena edo herenaren finkapena, beretik ateratzen diren benefizioekin batera agertzen diren datuak dira.

Elizaren beharrek eskaintzen oskilazioaz libratuz baliabide ekonomikoen lorpena finkatzera eraman zituen⁵⁰. Hori bai, egilearen erreferentziaz eta bere ordezkariak lurtean dituzten beharrez adierazpen askoz inguratuta. Azkenik eta batez ere XII. mendetik aurrera talde dominatzailearen zati baten egoera sozio-ekonomikoaren finkapena erakarriko du, hots, otoitz egiteko arduradunarenak, beste zatiari kalterik egin gabe⁵¹.

Nortzuek ordaintzen dituzte hamarrenak?

Partiden arabera guztiak hamarrenak ordaintzera behartuta daude, baita eliz gizonak ere beraien jabego

pribatuengatik⁵². Baina benetako historiak salbuespenak ekartzen dizkigu, legegintzak finkatu edo deuseztatuko dituenak beranduago.

Bakarrik aita santuak, teorikoki, zergadunei salbuespena eman ahal diezaieke; honetarako aita santuaren salbuespeneko bula bat emana izan behar dute⁵³. Hemen, Latrango IV. kontzilioak amaiera-puntua markatzen du, ordutik ordena erlijoso eta militarren propietateen salbuespenak mugatzen ditu⁵⁴. Baina askoz gehiago mugatzen ditu propietateen salbuespenetako lurra fraideek landu beharra eskatzen edo ezartzen denean⁵⁵. Azken ondorioa garai honetan oparitu ezin duenak zergak ordainduko dituela izango da.

Calahorrako katedralari batzeko eskubideak ematen dizkion dokumentuan hamarrena ordaintzeko obligazio orokorra ezartzen da⁵⁶. Edozein ordena, kondizio edo duintasuneko gizonak ordaindu beharra du. Hale ere XII. mendean sortzen diren gatazka ugariak hain ez dela betetzen adierazten digute. Baina azkenean Calahorrako apezpikuak aurrerapen eta atzerapenekin hamarrenaren gainean botere orokor bat ziurtatzea lortuko du, nahiz eta askotan ez batu, alde batetik berak ematen duen exentzio oparotengatik edo beste aldetik askotan gertatzen den bezala eskubide hau kenduta izateagatik. Batez ere banaketaren instituzionalizatzea eta hau apezpikuaren eskuetan egotea da interesatzen duena.

Baina legalki inor ez da ordainketaz libratzen, horrela arabar "milite" eta "villano" en ordaintzeko obligazioa ikus daiteke⁵⁷. Exentzioak ez dituzten ordenak ere ez dira libratzen, baina hala ere saiatzen dira, honen adibide nabarmena Najerako Sta. Maria La Real eta Calahorra artean egondako auzia da⁵⁸. Tenplarioak ere ez dira libratuko, Calahorrako apezpikuarekin haien propietateek emandako herenak banatu behar baitituzte⁵⁹.

Kristauak ez direnak ordainketatik salbuetsita daude, baina XII. mende erdialdetik aurrera eliz barrutiko juduei kristauei erositako propietateen hamarrenak eskatzen zaie lehen propietate hauek ordaintzen baitzuten⁶⁰.

Zein produkturen hamarrenak ordaintzen dira?

Sarrera guztien hamarrenak kobratzen dira, batez ere uzta biltzen eta hazten den gauza guztiena, erdi kalitateko produktuak eskatzen direlarik. Baina guk ikertzen dugun garaitik XVII. menderaino nekazaritza eta abeltzaintzaren kobru egiten da batez ere, errota eta isun batzuen kobratu arren. Hamarrenen banaketa partidetan finkatzen da, horrela lurretako hamarrenetan (Diezmo predial), lurra ematen duen fruitu, arbola, abere edo tresna mekanikoen etekinak jasotzen dira. Eta beste aldetik hamarren pertsonala, auzatasunagatik kobraturik eta industrialak, eskulangintza ekoizpena eta merkantzien merkataritza sartzen da⁶¹.

Hamarren predialen barne nagusiak eta txikiak bereizten dira. Nagusietan ogia, garia, garagarra, ardoa eta olioarenak sartzen dira, garaudunak ere deitzen diete, txikiak osagarritzko produktuetan, lekariak eta barazkiena eta batez ere abere ete beraiengandik eratortzen diren produktuena, erlauntza ere barne, finkatzen da.

Latranek kobrantza nola egin behar den ezartzen du, predialak propietatea dagoen lekuan; hemendik eliza hamarrendunen erakundea sortzen zaigu, pertsonalak sakramentuak hartzen diren elizan jasotzen diren bitartean⁶².

Hasieran dokumentazioak datu gutxi ematen digu, hala ere fruitu, abere eta negozioen kobro egiten dela badakigu, hau da, hasieratik bi mota-tako hamarrenak jasotzen direla⁶³.

Mezatarara doan jendearen artean egiten diren eguneroko banaketen bitartez gariarekin batera, ardoa, oliba, olio eta bildotsaren okela ematen direla ikusten dugu, eta dirudienez ditximatzen den ekoizpenetik dator guzti hau⁶⁴.

Hau da lur-hamarrenak, mahasti eta hortuarena kobratzen dira, baina abereenak ere bai; zati honetaz aparte hamarren txikiak, abere edo bere produktuengandik etortzen ez direnak ere agertzen zaizkigu. Armentiako elizari 1176. urtean oparitzen diotenen barne, hamarren txikietan sartzen diren beste produktuak daude, hauek dira babak, animalien janaritarako erabiltzen diren beste produktuak (yeros), idarrak (arvergis) eta lihoa⁶⁵.

Dokumentazioak informazio gehiago ematen digu hamarrenak hartzen dituztenei buruz.

Orokorra:

Eliza eta bere inguruan bizi den jendearen mantenua da hamarrenen helburua. Baina banaketaren kontura ikusiko duguna urrunago doa, eta horrela elizako talde dominatzailearentzako dirua lortzeko mekanismo nagusi bihurtuta ikusiko dugu.

Partidek eta Kontzilioek laikoek hamarrenak erabiltzea debekatzen dute⁶⁶, hamarrenen helburuak eliz barrutiko hierarkia, apaiz, pobre eta elizaren mantenua izan beharko lukeelako. Baina hamarrenen propietateen eskubidea (ius decimae) eskatzeko eskumen-ahalmena, eta hamarrenen gozamenen artean (ius fructum decimae), kobratu eta administratzeko eskubidea, desberdintzen da, eta horregatik laikoek ere haietan parte har dezakete⁶⁷.

Hamarrenak parrokien bitartez biltzen dira, horrexegatik parrokien gainean kontrola edukitzea, hamarrenak kontrolatzea suposatzen du. Parroki sarearen erakundearen bilakaera, bere krisi eta gatazkekin, hamarrenak jasotzeko gakoa da.

Baina jasotzen den modua ikustea baino garrantzitsuagoa da banaketa zelan egiten den ikustea, eta hemen legearen eta errealitatearen arteko distantzia handitzen zaigu.

Normalean, banaketari buruzko lehen hitzek banaketa heren edo laurdenetan egiten dela esaten digute⁶⁸.

Herenen kasuan % 33'33 klerigo edo elizaren zerbitzuan daudentzako, fabrika edo eliza mantentzeko egiten dira lanentzako berdina, eta apezpiku edo apezpikutegiko hierarkientzako izaten da azken hirugarren partea. Lau partetan banatzen badira laugarrena pobreen-tzako izaten da⁶⁹.

Herenetan egindako banaketa da Penintsulan zehar gehien zabaldua dagoena⁷⁰, baina ekialdeko erresumetan eta Calahorrari zegokien Euskal Herriko lurraldeetan (hobe esanda, Ebrotik beste alderakoak) lau partetan egiten den banaketa nagusitzen da⁷¹. Azkenengo hau Penintsulan bestea baino beranduago sartu zen eta idazle batzuen arabera dokumentazioan ez da XI. mende artean agertuko, agian aita santuaren eragin zuzen bezala⁷². Herenetako banaketa VI. mendetik aurrera ezagutzen da, eta beranduago lau zatitan egindako banaketa nagusitzen den leku batzuetan, esate baterako Iruñean, XI. mendearen hasieran herenak erabiltzen dira⁷³.

Baina hamarrenen banaketa zailtasun handikoa da benetan kasu konkretuetara jotzen badugu; apezpikutegien arteko desberdintasunak nabarmenak dira, baina nabarmena da guztietan benefi-ziodunen ugalketa orokorra, laiko edo erlijiosoak izan.

Banaketaren historiaren lehen fasea zatiak berdina direnean gertatzen da, baina informazioak ez digu ziurtatzen

hau existitu zen ala ez. Eta esan dugun bezala XIII. mendean benefizioidun berri bat gehitzen da, erregeak hamarrenen 2/9 (bi bederatzinak) hartuko baitu, klerigo eta fabriken herenetik irteten dena, horrela bakoitzak % 22'22 batzen ditu⁷⁴. Baina eliza zerbitzen dutenek obratik %11'11 hartuz beren zatia indartuko dute. Horrexegatik azkenengo hau oso ahuldurik geratzen da eta eliza parrokiak nabaritu dute.

Baina, eta arazoan gehiegi murgildu barik, hamarren nagusi eta txikiengandik benefizioidunek hartzen dituzten parteak desberdinak izaten dira eta hamarrenak batzeko eskubidea zuten elizetan egiten zen banaketa konplikatuagoa zen, hauek ordena erlijioso eta militarren eskuetan zeuden, eta momentu batzutan klerigoak gutxienez hamarrenaren 1/6 (seiren bat) ordaintzera behartzen zituztela dakigu⁷⁵.

Baina ditugun berri gehienak apezpikutegiko hierarkientzat batzen diren heren edo laurdenei buruzkoak dira. Honek daukan balioa XII eta XIII. mendeetan handitu egiten da, horrela benefizioidun gehiago mantendu ditzaketelarik⁷⁶.

Hasierako momentuan apezpikuak heren honen kontrola du⁷⁷, administratu eta banatzen baitu, baina dirudienez honek egiten dituen abusuengatik banaketaren deszentralizaziora jotzen da, horrela kapituluak parte hartuko du⁷⁸. Nahiz eta leku askotan kapitulu eta apezpikuaren arteko banaketa bi zati berdinetan egin ohi zela dirudien⁷⁹,

hau aldatu egiten da gero eta ez da batere erraza frogatzea.

Hurrengo urratsa kapitulukideen arteko “prestimonio” edo benefizioen banaketa Calahorra eta beste lekuetan XIII. mendearen erdialdetik aurrera izango da, kalonjeak, bere funtzioak, benefizio batean parte hartzeko eskubidera zabalduko dituenen.

Hasieratik Calahorrako elizan klerigoak mantentzeko hamarrenak ezartzen dira. Baina hasiera honetatik banaketaraino erregularitasun eta irregularitasunaren kasu mordoak aurki daitezke.

Hamarrenetan parte hartzeko eskubidea lortzeko forma legal bat existitzen da; apezpikuaren bitartez lortutakoa da. Bera izaten da katedraleko fabrika hornitzen duena, eta XII. mendearen hasieratik fabrikaren erabilpenerako destinaturik dagoena ez dira kantitateak izango, baizik eta leku konkretutan herenak eta laurdenak batzeko eskubideak, eta etxezain baten ardurapean egongo dira⁸⁰. 1156. urtetik aurrera fabrika honek Arabako herri batzuen laurdenak, Mennano eta Huribarri hain zuzen, batuko ditu⁸¹. Dokumentazioan begiratuz Calahorrako apezpikutegian ere parrokia zela hamarrenak biltzeko lekua argi geratzen da. Horrela parrokia bat dagoen leku batean beste bat eraikitzen saiatzen direnean, hasieratik apezpikuari baimena eskatu behar diote eta honek eliza berriaren eskubideak, hamarrenak barne, argi utziko ditu. Normalean lehenbiziko elizarekin arazorik sortu ez dadin, honi hamarren guztien kobrantza ziurtatzen

zaizkio, baina honek ez du kentzen parrokianoek beste lekura egiten duten desplazamendu baten aurrean gatazkak sortzea, batez ere erakunde erlijioso batek haien gaineko eskubideak hartzen dituenen.

Horrela gertatzen da 1193. urtean gertatutako parrokien lekuaren aldaketaren kasuan. Honek Najerako Sta. María la Realen kexa erakartzen du, Estibalizeko Villa Frankatik Gasteizera eta Asatik (herri despulatua, Ebroren ezker aldean) Laguardiara joandakoak, sarrerren jaitsiera eragiten zuelako aitzakiaz⁸².

Calahorrako katedrala eliz barrutiko hierarkientzako emandako zatiaren benefiziodun nagusi bihurtzen da, bai kalonjeak bai apezpikua bera ere. Apezpikua prestimonioen destinauz arduratzean da. Eliz barrutiko egitura administratiboa finkatzen den bitartean katedral kapituluaren indartzea ikusten dugu. Honek hamarrenaren portzentaiaren eskubideak, eliz barrutiko hierarkientzako direnak, eskuratzen ditu. Ez dira diru-kantitateak, ezta espezieak ere, baizik eta herri batzuek ematen duten herena edo laurdena⁸³. Apezpiku eta kalonjei dagokien parte banatuko direnean eta auzo-bizitza apurtzen den momentuan, kalonje eta apezpikuen mahaien sormena ikusten dugu. Bakoitzari dagokion partez XIII. menderaino ez dakigu gauza handirik, baina XII. mendearen erdialdera, 1156. urtetik 1179. urtera konkretuki, kalonjeek administratzen duten zatiaren finkapenaz ohartzen gara⁸⁴. Zati honen barne Arabako herriaren laurden hierarkikoa aurki daiteke, herri hauek Ceriano, Betollaza, Navarrete,

Angellu, Goiahin, Baguete, Roiave, Lucu, Arçamendi, Urivarri, Lehete, Aiala, Santus Romanus, Heguilaz, Verezeza, Bicutia, Munien, Ordonnana, Paterniana, Mezquina eta Berberigoko artxidiakonotegiko Arana eta Harrayako laurdenak dira⁸⁵.

XII. mendetik aurrera, artxidia-konotegien finkapenarekin, hauen aulkiek apezpikuaren boterearen ordezkariaren garrantzia eskuratzen dute lurralde bakoitzean. Horrela Armentiaiko Ander Deunak, apezpiku aulkia izatearen garrantzia berreskuratuko du, menpeko egoera batean bada ere. 1135. urtean Sancho de Funes apezpikuak, dokumentuek Armentia etxea derizatzen hornitzen du eta sari honen barruan Arabako hiri batzuen laurdenak agertzen dira; Armentia inguruan dauden Gasteiz, Berroztegieta, Lassarte, Gordalegui, Harizaballeta, Avendanio, Ehari, Arriaga, Betoño, Ellorriaga, Ardohia, Adurza, Olarizu, Mendecha, Castellu, Monasterium Gurena, Otaçu, Betriquiz, Illaraza eta Junquito. Ibita ibaiaren (Ayuda ibaia Treviñon) laurdenen erdia, Erribera eta Montisiako ardoaren laurdena eta Ander Deunako behiek ematen dituen esnearen erdia ere⁸⁶. Artxidiakonotegiaren barruan osotzen diren hamar klerigoak mantentzeko dira⁸⁷. Badakigu, mende honen erdian Rodrigo de Cascante Calahorrako apezpikuak Ander deunaren eliza berrezarri zuela⁸⁸ eta mendearen amaieran Calahorrara bidalitako bula batek Katedralaren ondoan beste hiru eliza kolezial direla apezpikutegian adierazten duela hain zuzen La Calzadako Sto.Domingo, Albeldako S.Martín eta

Armentiaiko S.Andres, bakoitza hamarrenak batzeko eta kobratzeko eskubidearekin⁸⁹. Honen froga 1227. urtean Calahorrako apezpikuaren eta Albeldako S.Martinen arteko hamarrenei buruzko konkordia da; Albeldak leku batzuetan laurdenak batzeko eskubidea du, agian Araban kobratzeko eskubidea adierazten digu honek⁹⁰.

XIII. mendearen hasieran Armentia aita santuaren lehen babes-bula batzen du, eta dokumentu honetan biltzen dituen laurdenak zeintzu diren agertzen da, baina ez guztiak baizik eta adibide moduko batzuk, apezpikuari esker lortutako Ibitaren erdia eta Vitoria, Ehali eta Elorriagakoa esate baterako⁹¹. Ez dakigu zergatik eskatu zuten babes berdina bost urte beranduago, baina hurrengo dokumentu honetan D. Juan apezpikuak egindako opari batzuk, konkretatu barik, gehitzen dira⁹².

Baina hamarrenetan benefiziodun gehiago ere badaude; Done Miliaga edo Prudentzio deunaren moduko⁹³ monastegiak edo ordena militarrek apezpikuaren heren eta laurdenen dohaintzari esker. Tenplarioren kasuan ez bakarrik kobratu zutena, Alcana-dreko herena, baizik eta errepikaturiko dohaintzak (honek dohaintza denborazkoa zela esaten digu) kontserbatzen ditugu⁹⁴. Done Miliagak apezpikuarekin egindako konkordia batez eta apezpikuak erreklamatzeari uko egiteaz lortzen du Errioxako herri batzuen hamarrenaren zati bat hartzea⁹⁵.

Laikoez ere legalki hamarrenetan parte har dezakete, esate baterako

dokumentuetan kapituluei eskubide hau saltzen dietenean aurkitzen ditugu, eta honen arabera apezpiku edo erregearen dohaintza bategatik lortu zuten parte hartzea⁹⁶. Baina gure ustez dokumenturik garrantzitsuena apezpikutegiko Ebrotik iparraldera dauden laurdenen bahitura agertzen dena da, konkretuki Araba eta Bernedoko artxidiakonotegien barne daudene-koena⁹⁷. Dirudenez Juan Perez jauna, apezpikua, apezpiku-kargua onartzeko segitu zuen auzi luzean, Erroman zorrak egin zituen; hauek Lope Diaz de Haro jaunak, Bizkaiko jauntxoak, ordaindu zituen, eta mailegua ordaintzeko apezpikutar mahaiko laurdenekin batutako dirua jauntxo honi uzten diola ikusten dugu; honek hamarrenen bitartez batutako kopuruaren garrantzia adierazten digu.

Zuhigutia, Zuhibarrutia, Quartango, Ibida, Ribera artziprestaldearen barne daude; honetaz aparte Heguilaz, Fuera eta Luscano, Legradana, Abdicana eta Alborcano. Hortik kanpo Armen-tiako etxea mantentzeko erabilitakoak geratzen dira Ibitako erdia ezik⁹⁸.

Baina banaketan parte hartzeko eskubide-auziak sortzen dira, bai laikoekin, elizaren patronuak direnak ala ez direnak, bai lehentasuna lortzeko borrokan dauden monastegi eta katedralekin. Jabego pribatuaren menpe dauden elizen arazoak, nahiz eta hispano-bisigoen garaietako kontziliotan agertu batez ere islam-darren inbasioetik aurrera sortzen den berezko izaera duen elizako barne-raikuntza dela eta agertzen dira⁹⁹. Apezpikuen boterearen erorketa eta kontzilioen etenaldiak elizak laikoan

eskuetan jaustea laguntzen du eta tenplu berrien eraikuntzaren arduradun izango dira hauek ere¹⁰⁰.

XI. mendetik aurrera, dohaintzen bitartez, laikuen eskuetatik irteten dira, baina honek ez du oztopatzen laikoek hamarrenetatik probetxua ateratzeko erabide bezala patronatua erabiltzea. Patronu bakoitzak eliz barrutiko hierarkiari bere parte ematen dio eta klerigoa mantentzen du edo sinpleki eliz barruti-dohaintza baten bitartez elizaren gainean apezpikuak duen potestadea onartzen du. Eta azkenean eliz hauetan apezpikuak mantentzen duen eskubide bakarra klerigoek bere aurrean egindako aurkezpena da¹⁰¹. Bizkaiko adibideak, beranduago aipatuko duguna, eliza parrokiaren monastegi-bilakaera adierazten digu, horrela patronuak hamarrenaren ordainketaz libratzen da.

Eta hemen beste arazo bati helduko diogu, Erdi aroko elizaren estruktura-ratioaren lehengo fasean monastegiak protagonista nagusiak direla esateko. Hauek dohaintzen bitartez eliza parrokiak askoz jabetuko dira, hauek hamarrenetan duten eskubideekin batera. Katedralen berpizkundearekin eta XII. mende bitartean, monastegiko gatazkak egunerokoak izango dira¹⁰². Eskumen gainezarpen eta hamarrenak batzeko eskubideak kultu zentroaren gaineko jabetasunean oinarriturik egotea suposatzen du.

Eliz barrutien arteko gatazkak apezpikutegien mugetan dauden parrokiengatik ere gertatzen dira; birkonkista eta gatazken muga batera finkatzen dira XI. mendetik XIII. mendera¹⁰³.

Horrela Calahorrak, Iruñea eta Burgosekin kereilak edukiko ditu, baita Tarazonarekin ere Fiteroko monastegia dela eta.

Hamarrenengatik ematen diren auziak bukaezinak lirateke eta auzkinari hondamendia ekarri. Erekurritzeko instantzia batzuk daude, lehenengoak eliz barrutiko apezpikua edo bere ordezkoa, baina erakunde erlijioso biren arteko auzia denean metropoliko apezpiku edo Vatikanoko kardinaleraino hel daiteke, etengabeko errekurtsuekin amaigabeko prozesu bihur daitekeelarik¹⁰⁴.

Eliz barrutian dagoen gatazkarik garrantzitsuena Najerako Sta. Maria la Real, Klunitar monastegia, eta Calahorrako katedralaren artekoa da, XII. mende osoa iraungo du eta XIII. mendean segituko du. Beranduago aipatuko dugu arazo hau.

Jakina Calahorrako apezpikutegian dagoen Euskal Herriaren zatian ez dago garrantzi nagusirik duen monastegirik (agian Trebiñoko Sta. Maria de Panguaren kasua desberdina da, XIII. mendean alde horretan laurdenaren zati bat hartzen duelako)¹⁰⁵, baina hamarrenen hartzaile diren jauntxo edo klerigo parrokiarekin apezpikuak akordio edo auzitara helduko dira.

XII. mendean hasieran Sancho de Grañon apezpikua arabarrekin hamarrena eta apezpikutar laurdenei buruzko akordio batera heltzen da¹⁰⁶. Ikusten denez lehenengo momentutik laurdenak ordaintzen dira, eta mendetan zehar horrela iraun du

apezpikutegiaren beste aldeetan herenak ordaintzen diren bitartean (hemendik galdera garrantzitsu bat atera dezakegu: nork kobratzen du laugarren zati hau?)

Dokumentu honek milite eta villano-ek elizako errentetan egindako irregulartasunez hitz egiten digu. Arabako jauntxoek ezin dutela hamarrenik hartu zin egingo dute, ezta apaizak erosi edo saldu ere¹⁰⁷. Baina akordio hau ez da errespetatuko eta horregatik Estibalizen batzar berri bat egitera behartuta egongo dira¹⁰⁸. Baina oraindik XIII. mendean hasieran apezpikuari emandako bula batek laikoengandik hamarrenaren kobrantzaren kontra borrokatzen du, ez dira beraz gauzak hainbeste aldatu¹⁰⁹.

Ezta ere arabar klerigoen jokaera bere statusak eskatuko lukeen bezain ereduzkoa, gutxienez birritan izaera orokorrarekin¹¹⁰ eta beste bat izaera partikularrarekin, apezpikuak jokaera zuzen dezaten eskatu beharko baitie. 1214. urtean Inozentzio III aita santuak, delegaturiko epailearen bitartez, parte hartu beharko du artzain bisitari arabarrek egiten dioten erresistentziari aurre egiteko¹¹¹.

Hamabost urte beranduago Najerako artxidiakonoari berdin gertatuko zaio. Kasu honetan La Sonsierrako S.Vizente, Labastida eta Briñasko klerigoek bere lurraldean apezpikuaren boterearen ordezkaritza daukanari eman behar dizkioten hamarrenak gordetzen dituztelako¹¹².

Najera eta Calahorraren arteko auziari lotuz eta guri interesatzen

zaiguna begiratzuz, Sta. María la Realek 1193. eta 1194. urtetan Ebrotik beste aldera dauden eliza batzuen gaineko eragina erreklamatzeko du, hauen artean Aszolo (Azuelo, Nafarroa), Aras (Nafarroa), Longar (Torralba del Rio-ren ondoan, Nafarroa), Petrafita (Azuelo eta Aras-en arteko desp., Nafarroa), Ohoro(Oro), Ovecuri (Araba) eta Viero (Entrenaren ondoko desp. Errioxa)¹¹³. Eragin honetan hamarrenak kobratzeko eta apaiza aukeratzeko eskubideak sartzen direla ematen du. Baina batez ere lehengo urtean Najerak banaketa historiko orokor bat baino gehiago arabarren gaineko potestade bat erreklamatzeko du¹¹⁴. Apezpikutegiaren beste aldean egoerak ez du desberdina ematen, 1225. urtean datatzen den dokumentu batek apezpikutegiko klerigoak ez dutela prokurazio edo katedratikorik ordaintzen adierazten digu, eta beraien egoera soziala ezagutzen ez dugun arren hamarrenak hartzen dituzte eta ez dute apezpikuaren interbentzioa baimentzen¹¹⁵. Ez da arraroa Rodrigo Diaz Cameroseko jaunaren kasua; honen kontrako salaketa bat aurkitzen dugu 1225ean hamarrenak hartze-agatik¹¹⁶, baina ez dakigu eskomikatua izan zen ala ez.

Elizako errentetan hamarrenak duten balioa.

Garai honetan ezin izan dugu Calahorrako elizako errentetan hamarrenak duten pisuaren bidezko kalkulu bat atera, ezta Arabako herriek emandakoarena ere. Hamarrenekin batera elizak lurralde eta eskumen jaurgogatik errentak batzen ditu.

Baina XII. mendetik aurrera hamarrenak zenbat lekutan duen garrantzia ezagutzen dugu, are gehiago beste errentak ziurtatuta dauden momentuan¹¹⁷. Gure katedralarentzat hamarrenaz baliatzea botere-taldean duten lehentasuna ziurtatzeko bigarren urrats bat da.

XV. mendean leku batzuetan hamarrenak milio bat maravedi baino gehiago dira¹¹⁸ eta XVI. mendean elizarentzako diru sarreraren % 90a izango dira¹¹⁹.

Gure aldetik eta datu kuantitatiboen faltaren aurrean kalitatezkoak eman ditugu, batez ere botere-taldek hamarrenetan parte hartzeko duten interesa. Hamarrenen esangura ondo neurtu nahian, Arabako laurden parte beten bahitura har dezakegu. 1229. urtean ematen da, ez zaigu kantitate handia iruditzen prestimonioen kantitate handia barruan sartuta dagoela kontuan hartzen badugu.¹²⁰

Bizkaiko kasua.

Amaierarako utzi dugu Calahorrako apezpikutegiaren barne dagoen Bizkaiko aldearen kasua. Berriak eskasak dira eta XIII. mendearen erdialdean kapitulu eta apezpikuaren arteko banaketan herri bizkaitarrak ez dira agertzen (hori bai, Laguardia inguruak ere ez, eta ordaintzen dituzte)¹²¹. Honek agian kapitulu eta apezpikuak normalean ez dutela hamarrenak kobratzen esan nahi du. Dokumentuek Bizkaiko artxidiakotegia bazegoela adierazten digute¹²² eta honek XII. mendearen erdialdetik

Ander deunaren egunean apezpikuari prokurazioa ordaindu behar diola, baina ez dakigu nork hartzen duen kargu hau XIII. menderarte eta hemendik aurrera aldizkako eran¹²³. Agian zerikusia du honetan XI. mende erdialdetik Najerako Garziak Bizkaia eta Durangoko monastegiei ematen dien askatasun-dohaintza (ingenuitate) ¹²⁴. Hots, beste lekuetan eliza propioen ematearekin sare parrokiala eratzen den bitartean, Bizkaian aurreko egoera finkatzen da. Parrokiak monastegi bihurtzen dira hamarrenak ez ordaintzeko eta gehienetan bere barnean fraide-komunitaterik izango ez duten monastegiak dira.

Zertarako balio dezake horrelako ikerketak?

Ikuspuntu ekonomikotik horrelako ikerketaren garrantzia zalantzan jar daiteke, baina produktu gordinaren proportzionala den hamarrena kontuan hartzen badugu, berari esker nekazaritza eta abeltzantzaren ekoizpena eta hauen aldaketa koiunturalak iker ditzakegu¹²⁵. Normalean garai honetan zifren falta nabaria izaten da baina banaketa eta parte hartzea klerigoen eta batez ere talde dominatzailearen barne dauden eliz gizonen jokaera ekonomikoa erakutsiko digute.

Oharrak

- 1 XI. mende amaieratik egungo Euskal Herriko lurraldeak Calahorraren barnean aurkitzen ditugu.
- 2 Baionako eliz barrutiari buruz ikusi:
DUBARAT, V. eta DARANATZ, J.B.: *Recherches sur la ville et sur l'église de Bayonne*. Bayonne-Pau 1929.
- 3 Iruñekoari buruzkoa:
GOÑI GAZTAMBIDE, J.: *Hª de los obispos de Pamplona*. Pamplona 1979.
- 4 Honi buruzko bibliografia:
CORRAL LAFUENTE, J. L.: "El obispado de Tarazona en el s. XIV. II Las Propiedades episcopales". *Turiaso*-n 1981, 2 z., 205-287 orr.
- 5 Burgosekoari buruzkoa:
SERRANO, L.: *El obispado de Burgos y Castilla primitiva desde el s.V al XIII*. Madrid 1935.
- 6 RODRIGUEZ R. DE LAMA, I.: Colección diplomática Medieval de La Rioja. IV. Tomoa, XIII. mendeko dokumentuak. Logroño 1989. 235 dok.
- 7 Arabako artxidiakonotegiaren barnean 11 artziprestalde zeuden: Hegilaz, Ganboa, Zigoitia, Vitoria, Leniz, Cuartango, Orduña, Ayala, Ribera, Treviño. Idem 217-223 eta 227-229 orr.
- 8 190, 191, 395, 401, 431 eta 461 dokumentuetan.
- 9 235 dok., 220-21., 221-23 eta 228-29 orr.
- 10 Idem 225-26 eta 232-33 orr.

- 11 Idem 223 o.
- 12 FLICHE, A.; YVONNE, A. ETA THOOZELLIER, C.: *Hª de la iglesia*. X. tomoa. Valencia 1975, 201-14 orr.
- 13 Erabilitako dokumentazioa RODRIGUEZ DE LAMA, I.: *Colección diplomática medieval de La Rioja*. Logroño 1979-89 -tik aterata izan da.
- 14 Idem IV. tomoa 132 dok, 124-33 orr. Logroñon ospatutako sinodoa 1240.eko otsailaren 20an.
- 15 Idem 14, 16, 17, 18, 20 eta 40 artikulua.
- 16 14 artikulua. 127 o.
- 17 16 artikulua, 127-28 oo.
- 18 18 eta 40 artikulua, 128 o. eta 132 o.
- 19 DUBY, G.: *Economía rural y vida campesina en el occidente medieval*. Barcelona 1968, 81 o.
- 20 SAN MARTIN, J.: *El diezmo eclesiástico en España hasta el s.XII*. Palencia 1940.
- 21 Idem, 109 o.
- 22 RODRIGUEZ DE LAMA, op. cit, 6 dok.
- 23 Idem.
- 24 Idem.
- 25 Idem
- 26 MANSILLA, D.: "El obispado de Alava en la Edad Media." *Vitoria en la Edad Media*-n. Vitoria 1972, 272 o.
- 27 R. DE LAMA, op. cit. 98 dok, (1109)
- 28 Idem 49 dok (1109).
- 29 Itun Zaharra:
 Genesis 14, 20/ 28, 22
 Deuteronomia 14, 22-29/ 26, 12-15.
 Tobias 1, 6-8.
 Levitikoa 27, 30-32 e.a.
- 30 ALVAREZ VAZQUEZ, J.A. *Los diezmos en Zamora (1500-1840)*. Zamora 1984, 45-53 orr.
- 31 SAN MARTIN, op. cit. 31 o.
- 32 Idem, 34 o.
- 33 Idem, 31 o.
- 34 ALDEA, Q. VIVES eta MARIN: *Diccionario de Hª eclesiástica de España*. Madrid 1972. 757 o.
- 35 SAN MARTIN, 49 o.
- 36 Idem, 37 o.
- 37 ALDEA et alii, op. cit. 757 o.
- 38 SAN MARTIN, op. cit. 89 o.
 983-976. Benedicto, Najerako apezpikua eta S. Millango Vigila abadearen arteko Desojoko hamarrenen banaketa (Nafarroa) .
- 39 SAN MARTIN op. cit. 106 o.

- 40 ORLANDIS, J.: *La iglesia en la España Visigótica y Medieval*. Pamplona 1976. 324 o.
- 41 Idem
- 42 FOREVILLE, R.; FLICHE, A. eta ROSSET, J.: “La reforma de la iglesia secular” *Hª de la iglesia*-n IX. tomoa. Valencia 1977, 151-169 oo.
- 43 FERNANDEZ CONDE, F. J.: *La iglesia de Asturias en la Baja Edad Media*. Oviedo 1987, 83 o.
- 44 ALDEA, Q.: “La economía de las iglesias locales en la Edad Media y Moderna” *Hispania Sacra*-n 51-52 z. 1973, 30 o.
- 45 MARTIN MARTIN, J.L.: “Cabildos catedralicios del occidente español hasta mediados del s.XIII.” *Homenaje a Fray Justo Pérez de Urbel*. Silos 1977, II. Tomoa 130 o.
- 46 FERNANDEZ FLOREZ, J.: “El becerro de presentaciones código 13 del Archivo de la Catedral de León. Un parroquial leonés de los s. XIII-XV.” *León y su Hª*-n León 1984, 309 o.
- 47 ALVAREZ VAZQUEZ, op. cit. 45-53 orr.
- 48 Idem.
- 49 LOPEZ DIAZ, Mª I.: “Consideraciones sobre el diezmo” *Actas des II Jornadas Luso-espanholas de Hª Medieval*- en Porto 1987, 665 o.
- 50 SAN MARTIN, OP. CIT. 30 o.
- 51 GARCIA GONZALEZ, J.J.: *Señorio y fiscalidad eclesiástica en San Salvador de Oña (1011-1550)*. Tesis doctoral. Madrid 1982, 304 o.
- 52 Idem, op. cit. 337 o.
- 53 FELONES MORRAS, R.: “Contribución al estudio de la iglesia navarra del S.XIII. El libro del rediezmo de 1268. I Estudio y Valoración” *Principe de Viana*-n 165 z. (1985), 176 o.
- 54 Idem.
- 55 Idem.
- 56 R. de LAMA, 6 dok (1045).
- 57 Idem 49 dok (1109).
- 58 210 dok (1162)
326 dok (1192)
335 eta 337 (1193)
343 dok (1194)
351 dok (1194)
461 dok (1214)
467 dok (1216)
- 59 180 dok (1155)
192 dok (1156)
213 dok (1162)
- 60 206 dok (1158-1177).
- 61 SAN MARTIN , op. cit. 110 o.
- 62 LOPEZ DIAZ, op. cit. 668 o.
- 63 R. de LAMA, op. cit. 6 dok. (1045)

- 64 Idem, 79 dok (1125)
- 65 Idem, 254 dok (1173).
- 66 GARCIA GONZALEZ, op. cit 343 o.
- 67 Idem, 351 o.
- 68 GUADALUPE BERAZA, M^a L.: *Diezmos de la sede toledana y renta de la mesa arzobispal (s.XV)*. Salamanca 1972, 9-24 orr.
- 69 SAN MARTIN, OP. CIT. 16-17 orr.
- 70 Idem 21 o.
- 71 Idem 21 o., 2 oharra.
- 72 Idem 106 o.
- 73 Idem 92 o., 99 o.
- 74 GUADALUPE BERAZA, op. cit. 9-24 orr.
- 75 RODRIGUEZ GALDO, M.X.: *Señores y campesinos en Galicia s.XIV-XVI*. Santiago 1976. 204-05 orr.
- 76 FERNANDEZ CONDE, op. cit 75 o.
- 77 SAN MARTIN, op. cit 13 o.
- 78 Idem 15 o.
- 79 RODRIGUEZ GALDO, op. cit. 204 o.
- 80 R.DE LAMA, op. cit. 56 dok (1119).
- 81 Idem 190 dok (1156)
- 82 Idem 335 dok (1193).
- 83 Idem, 190 eta 191 (1156 eta 1179).
- 84 Idem.
- 85 Idem.
- 86 Idem 108 dok (1135).
- 87 Idem
- 88 ALAMO, M.: "Diocese de Calahorra et La Calzada." *Dict. d'hist. et de Geographie Ecclesiastique-n* Letrocuey París. 276-327 oo.
- 89 R. de LAMA, op. cit 328 dok (1192).
- 90 Idem IV. Tomoa. 83 dok.
- 91 Idem 45 dok (1218).
- 92 Idem III. Tomoa 490 bis dok (1223).
- 93 Idem 453 dok. (1211).
- 94 Idem 180 dok (1155), 192 dok (1156) eta 213 dok. (1162).
- 95 Idem 217 dok (1163), 218 dok (1163-64).
- 96 Idem 208 dok (1161).
- 97 Idem IV. Tomoa 91 dok. (1229).
- 98 Idem.
- 99 SAN MARTIN, op. cit 139 o.
- 100 FERNANDEZ FLOREZ, op. cit. 298 o.
- 101 Idem 302 o.
- 102 GOÑI GAZTAMBIDE, op. cit. 151 o.
- 103 GONZALEZ, J.: *El reino de Castilla en la época de Alfomso VIII*. Madrid 1966. 365-479 orr.

- 104 ALVAREZ VAZQUEZ, op. cit. 42 eta hurr. orr.
- 105 R.DE LAMA, op. cit IV. Tomoa 235 dok., 223 o.
- 106 Idem III. Tomoa, 49 dok. (1109).
- 107 Idem.
- 108 Idem.
- 109 R.DE LAMA, op. cit. III. Tomoa 488 dok (1222) eta 505 bis dok (1225).
- 110 Idem, 505 bis dok (1225).
- 111 Idem 463 dok (1214).
- 112 Idem IV. Tomoa 96 dok (1230).
- 113 Idem III. Tomoa 335 eta 337 dok (1193).
- 114 Idem 335 dok (1193).
- 115 Idem, 505 bis dok (1225).
- 116 Idem 503 dok (1225).
- 117 ALDEA et alii, op. cit. 757 o.
FERNANDEZ CONDE, op. cit 75 o.
- 118 GUADALUPE BERAZA, op. cit. 23 o.
- 119 ALDEA, Q. op cit 45 o.
- 120 Totalean 800 mrk. ematen dute urtero. R. DE LAMA, IV. Tomoa, 91 dok. (1229).
- 121 Idem 235 dok (1257) 223 o.
- 122 Idem III. Tomoa 190 dok (1156), 191 dok (1156), 395 dok (1200).
- 123 Idem 401 dok (1201) Bizkaiko Artxidiakonoa G.
431 dok (1205) ez da bere izena agertzen.
447 dok (1209) bost artxidiakono agertzen zaizkigu, agian W. lehen aipatu duguna izan daiteke.
461 dok (1214) Eneco Petriz jauna, Bizkaiko artxidiakonoa.
- 124 Idem 10 dok (1051)
- 125 BATZUK: *Les fluctuations du produit de la dime*. Paris-Le Haye 1972, 10 o.
ALVAREZ VAZQUEZ, op. cit. 11o.